

CHARLES CHAPLIN IZANGO DA PROTAGONISTA BILBOKO UDAL MUSIKA BANDAK MUSIKA-MÚSICA JAIALDIAN ESKAINIKO DUEN KONTZERTUAN

- The Pawnshop filmaren proiektioarekin batera zuzeneko musika eskainiko du talde bilbotarrak, Charlot pertsonaia protagonista izango duen "Charles Chaplin: musika, irudia eta emozioak" izeneko kontzertuan.
- Emanaldia igande honetan izango da, martxoaren 3an, 11:30etan, Euskalduna Jauregiko Auditorioan.

(Bilbao, 2024ko martxoaren 1ean). – Ohikoa den moduan, Bilboko Udal Musika Bandak ez du hutsik egingo Bilboko Udalak antolatutako **Musika-Música Jaialdian**. Talde bilbotarrak, **José R. Pascual-Vilaplanak** gidatuta, **Charles Spencer Chaplin** komediagile bikainaren irudia ardatz izango duen programa prestatu du Musika-Música jaialdiaren edizio honetarako. Izan ere, Chaplinek **pianoa, organoa, biolina, txirula eta biolontxeloa** jotzen zituen musikari gisa.

Soinu-zinemaren aurretik, 1916an, Chaplinek **The Pawnshop** izeneko film laburra idatzi, zuzendu, ekoitzi eta protagonizatu zuen. 25 minutuko film mutua da, bahitura-denda baten inguruan sortzen diren gertaera komikoz betea, maitasun-istorio era guzti. Garai hartan ohikoa zen **filmaren proiektioa zuzeneko musikaz lagundua izatea**. Oraingo honetan, eta ohiko pianoa ordezkatzuz, Bilboko Udal Musika Bandak film laburraren proiektioa aprobetxatuz **Antón Alcalde** konpositore galiziar gazte eta nabarmenak idatzitako musika ipiniko dio.

Chaplinek berak bere filmeetako hainbat musika gai idatzi zituen, hainbat orkestratzaileraren laguntzarekin. **Marcel Peeters** musikagile belgikarrak bikain moldatu zituen horietako doinu batzuk talde sinfonikorako 90eko hamarkadan, eta Bilboko Udal Musika Bandak kantu horietako batzuk berpiztuko ditu.

Hitzordua igande honetan izango da, **martxoak 3**, goizeko **11:30etan**, **Bilboko Euskalduna Jauregiko auditorioan**.

- Sarrerak 'La Perrera' erakinean (Sabino Arana, 50) kokatutako **Jaialdiaren egoitzan**, **Euskalduna Jauregiko lehiatilan** eta www.euskalduna.eus web-gunean daude eskuragarri. **Kutxabankeko zerbitzu anitzeko kutxazainek alde zuzenean aurretik web-gunearen bidez erositako sarrerak jasotzeko bakarrik balioko dute.**

PROGRAMAREN GAINENKO OHARRA (José R. Pascual-Vilaplana, zuzendari titularra)

Charles Spencer Chaplin (Londres, 1889 - Corsier sur Vevey, 1977) komediagile bikainak film hilezkor batzuk idatzi ditu, zeinetan musikak berebiziko garrantzia duen. **Fotogramaren eta Charlot mitikoaren esku dagoen efektu musikalaren arteko konbinazioak** dimentsio berri bat hartzen du zinemaren historian. Chaplinek pianoa, organoa, biolina, flauta eta biolontxeloak jotzen zituen, eta berak idatzi zituen bere filmetako hainbat musika-kantu, hainbat orkestratzailearen laguntzarekin, besteak beste, Alfred Newman, David Raskin eta Arthur Johnson. **Idea musikal originalekin**, gai erraz baina liluragarriak sortzea lortu zuen. **Marcel Peeters (Anberes, 1926-2020)** musikagile belgikarrak bikain moldatu zituen doinu horietako batzuk banda sinfonikorako 90eko hamarkadan. Peetersek zinerako eta telebistarako musikan lan egin zuen eta Sacha Distel edo Placido Domingo bezalako artisten moldatzailea izan zen. **Orkestrazio koloretsuz eta artisau-fakturaz betetako suite** bat aurkezten digu.

Baina soinu-zinemaren aurretik, 1916an, Chaplinek **The Pawnshop** (Chaplin, mailegu-emailea) izeneko film laburra idatzi, zuzendu, ekoitzi eta protagonizatu zuen. Film mutu bat da, bahitura-denda baten inguruko egoera komikoz betea, dagokion maitasun-istorioarekin: konbinazio perfektua aktore ingelesaren lehen zintetako batean, zeinetan, kritikarien arabera, **Chaplinek bere mugimendu komikoetan perfektuak ziren zehaztasun eta grazia koreografikoak nabarmendu zituen.**

Eta garai hartan ohikoa zen bezala, filmaren proiektzioarekin batera zuzeneko musika eskainiko da, kasu honetan, eta ohiko pianoaren ordez, Bilboko Udal Musika Banda arituko da. **Anton Alcalde (Rianxo, 1992)** musikagile galiziar gazte eta ospetsuak, Taiwanen bizi eta konposizio lehiaketa ugaritan saritua, **musika preziosista eta eklektikoa** idatzi du Chaplinen film labur honen ekintza laguntzeko. Bertan, XX. mende hasierako musikaren eraginak igartzen dira, denboran aurreratuagoak diren eta egungo soinu-banda baten berezko efektuekin.

Musikak eta irudiak bat egiten dute sinbiosi artistiko idiosinkratiko bat sortzeko. Katarsia gozaten duenarengan askatasunez sortzen da, benetako emozioa biltzen duen baldintza bakarra.

BILBOKO UDAL MUSIKA BANDA

MUSIKA - MÚSICA 2024

“CHARLES CHAPLIN: MUSIKA, IRUDIA ETA EMOZIOAK”

EGITARAUA

CHAPLIN/DELANGE / WILLSON / PHILLIPS / PARSONS

Mold. Marcel PEETERS (1926-2020)

CHARLES CHAPLIN (1995)

Antón ALCALDE (1992)

THE PAWNSHOP, op.7 (2012)

Charles Chaplinen izen bereko filmaren proiektioari buruzko zuzeneko musika.

CHARLES CHAPLIN SERÁ EL PROTAGONISTA DEL CONCIERTO DE LA BANDA MUNICIPAL DE MÚSICA DE BILBAO EN EL FESTIVAL MUSIKA-MÚSICA

- **Música en directo sobre la proyección de la película The Pawnshop (El prestamista) con el propio personaje de Charlot como protagonista será el plato fuerte del concierto titulado "Charles Chaplin: música, imagen y emociones".**
- **La cita tendrá lugar este domingo 3 de marzo, a las 11:30 horas, en el Auditorio del Palacio Euskalduna.**

(Bilbao, a 1 de marzo de 2024). –La Banda Municipal de Música de Bilbao no fallará a su cita con el **Festival Musika-Música**, organizado por el Ayuntamiento de Bilbao. La formación bilbaina, dirigida por **José R. Pascual-Vilaplana**, ha preparado para esta edición un programa centrado en la figura del genial comediante **Charles Spencer Chaplin**, quien en su faceta de músico tocaba el **piano, el órgano, el violín, la flauta y el violonchelo**.

Antes del cine sonoro, en 1916, Chaplin escribió, dirigió, produjo y protagonizó un cortometraje titulado **The Pawnshop** (El prestamista). Se trata de una película muda de 25 minutos, llena de situaciones cómicas alrededor de una tienda de empeños, con su correspondiente historia de amor. En aquella época era habitual que la **proyección de la película fuese acompañada de música en directo**. En esta ocasión, y sustituyendo al tradicional piano, la Banda Municipal de Música de Bilbao se sumará al desarrollo del cortometraje con la música escrita por el joven y destacado compositor gallego **Antón Alcalde**.

El propio Chaplin escribió varios temas musicales de sus películas, contando con la ayuda de varios orquestadores. El compositor belga **Marcel Peeters** arregló brillantemente varias de esas melodías para banda sinfónica en los años 90 y la Banda Municipal de Música de Bilbao revivirá alguno de esos temas.

La cita será este domingo, **3 de marzo**, a partir de las **11:30 horas** en el **auditorio del Palacio Euskalduna de Bilbao**.

→ Las entradas podrán adquirirse en el edificio 'La Perrera' (Sabino Arana, 50), sede del Festival, en la **taquilla del Palacio Euskalduna** y en la **página www.euskalduna.eus**. **Los cajeros multiservicio de Kutxabank únicamente servirán para retirar las entradas previamente adquiridas a través de la página web.**

NOTAS AL PROGRAMA (José R. Pascual-Vilaplana, director titular)

El genial comediante Charles Spencer Chaplin (Londres, 1889 - Corsier sur Vevey, 1977) es el autor de una serie de películas inmortales en las que la música juega un papel fundamental. La **combinación del fotograma con el efecto musical** en manos del legendario Charlot, cobra una nueva dimensión en la historia del cine. Chaplin, que tocaba el piano, el órgano, el violín, la flauta y el violonchelo, escribió él mismo varios temas musicales de sus películas, contando con la ayuda de varios orquestadores, entre ellos, Alfred Newman, David Raskin y Arthur Johnson. Con **ideas musicales originales**, consiguió crear un conjunto de temas sencillos pero fascinantes. El compositor belga **Marcel Peeters (Amberes, 1926-2020)** arregló brillantemente varias de esas melodías para banda sinfónica en los años 90. Peeters, que trabajó en la música para el cine y la televisión y fue arreglista de artistas como Sacha Distel o Plácido Domingo, nos presenta una **suite llena de colorista orquestación y de artesanal factura**.

Pero antes del cine sonoro, en 1916, Chaplin escribió, dirigió, produjo y protagonizó un cortometraje titulado **The Pawnshop** (conocido como Chaplin, el prestamista). Se trata de una película muda, llena de situaciones cómicas alrededor de una tienda de empeños, con su correspondiente historia de amor: el combinado perfecto en una de las primeras cintas del actor inglés en las que, según los críticos, **Chaplin hizo alarde de una precisión y una gracia coreográficas muy perfeccionadas en sus movimientos cómicos**.

Y como era habitual en la época, la proyección de la película irá acompañada de música en directo, en este caso, y sustituyendo al tradicional piano, por la Banda Municipal de Bilbao. El joven y destacado compositor gallego **Antón Alcalde (Rianxo, 1992)**, afincado en Taiwán y premiado en numerosos concursos de composición, ha escrito una **preciosista y ecléctica música** para acompañar la acción de este cortometraje de Chaplin. En ella se adivinan influencias de la música de principios de siglo XX con incursiones en efectos más avanzados en el tiempo y propios de una banda sonora actual.

La música y la imagen se fusionan en la creación de una simbiosis artística idiosincrática. La catarsis en quien la disfruta se genera con libertad, la única condición que envuelve a la emoción más auténtica.

BANDA MUNICIPAL DE MÚSICA DE BILBAO
MUSIKA - MÚSICA 2024
“CHARLES CHAPLIN: MÚSICA, IMAGEN Y EMOCIONES”

PROGRAMA

CHAPLIN/DÉLANGE / WILLSON / PHILLIPS / PARSONS

Arr. Marcel PEETERS (1926-2020)

CHARLES CHAPLIN (1995)

Antón ALCALDE (1992)

THE PAWNSHOP, op.7 (2012)

Música en directo sobre la proyección de la película homónima de Charles Chaplin.